

Batzen gaituzten hariak.



ALDERDI EGUNA 2025
2025.09.28. Igandea. Forondan

IMANOL PRADALES LEHENDAKARIAREN HITZALDIA **Foronda, 2025.09.28**

Alderdikideok, abertzaleok, euskaldunok: egun on! Forondan elkartu gara beste urte batez! Ze azkar pasa zaigun urtea! Ze poza hemen berriro zuekin elkartzea!

Duela bi hilabete eskas Boisen, euskal Diasporaren Jaialdian egon ginen. Alderdi Egunak eta Boiseko Jaialdiak antza handia dute. Jai giroa, aspaldi ikusi ez ditugun pertsonak berriz ere topatzea, gure nortasunaren aldarrikapena eta indarra... Gogoan dut aireportura heldu ginen unea, 22 orduko bidaia luzearen ostean. Hegazkinetik jaitsi eta Boiseko Oinkari dantza taldeak agurra dantzatu zigun. Dantzari gazte eta amerikanoak. Agurtzera joan, eta “arratsalde on Lehendakari, ongi etorri Jaialdira”, esan zidaten euskaraz. Euskara ederrean esan zidaten... Amerikako Euskaldunekin euskaraz. Oso urruti nengoen, bai, baina etxean sentitu nintzen. Hurrengo egunean, Boiseko Euskal Museoan bisitan, Javier Bertiz artzain nafarra ezagutu nuen. Hantxe zegoen, txapela buruan eta makila eskuan. A ze gizona! A ze bizitza!

Duela 60 urte pasa, Sunbillatik abiatu zen, 18 urterekin. Bizitza hobe baten bila. Atlantiko osoa gurutzatu zuen New Yorkera iristeko. Milaka eta milaka euskaldunek aurreko mendean egin bezala. Urduritasuna, tristura, beldurra, ezjakintasuna... baina, etorkizunari begira, ilusioa. Ameriketara bederatzi Estatu gurutzatu zituen, ekialdetik mendebaldera. Ingelesekin hitz erdirik jakin gabe. Pelikuletan bezala, baina zaldirik gabe. Eta Boiserara iritsi zen, paper bat eskuan: Uberuaga House. “Sartu!, etxean zaude” esan zioten. Bertan dozenaka euskaldun. Milaka kilometrora, eta euskaraz. Begiak bustita, bere historia kontatzen zidan bitartean, esan zidan: “etxean nago, Lehendakari”. Etxean nago. Hori sentitu zuen. Hori da gure izateko modua, hemen eta Boisen. Etxeko ateak zabalik eta sutondoaren beroa behar duenarentzat! Eta harro sentitu nintzen! Oso harro! Euskal etxeak ematen digun babesaz harro! Gure jendeaz harro! Gure herriaz harro! Euskaldun izateaz harro!

A Boise, y a todo el continente americano, llegaron miles de personas como Javier, que encontraron allí a quienes les acogieron y ayudaron. La historia de Javier nos muestra lo importante que es cuidar lo nuestro. La importancia que tiene proteger nuestra casa y nuestra comunidad. La Casa Vasca. Lo digo porque estamos viviendo tiempos complicados y de mucha incertidumbre. Ya veis como está el mundo: Trump, Putin, Xi Jin Ping, Gaza, Ucrania... Ya veis también lo que tenemos alrededor... ¿Qué podemos esperar del gallinero español? ¡Da vergüenza ajena! Así que tenemos que centrarnos en cuidar la casa vasca. Gure etxea. Nuestra casa. Y lo primero es cuidar a las y los de casa. Cuidar a las personas. Hace un año largo que iniciamos la legislatura. Desde el primer día nos volcamos en mejorar Osakidetza y preparar nuestro sistema sanitario para el futuro. Y en ello seguimos porque el camino es largo. Lo hacemos escuchando y

Batzen gaituzten hariak.



ALDERDI EGUNA 2025
2025.09.28. Igandea. Forondan

atendiendo a quienes más saben, a las y los profesionales. Buscando acuerdos. En una Mesa en la que se ha hablado de todo y se ha acordado casi todo. El Pacto de Salud es el primer acuerdo de País de esta Legislatura. Hay quien se ha volcado y quien no. Hay quien ha estado hasta el final, y quien se ha levantado en el último momento. ¡No pasa nada! ¡Nosotros a lo nuestro! ¡Nosotros a lo importante! A poner los medios para mejorar la salud de las personas y su bienestar. ¡A cuidar y mejorar Osakidetza!

El bienestar no solo es material. También es emocional. Lo decía el día pasado en el Pleno de política general. ¿Por qué, en una sociedad del bienestar como la vasca, existe en algunos colectivos una sensación de malestar y enfado permanente? ¿Por qué, en una sociedad teóricamente más conectada que nunca, hay cada vez más personas que se sienten solas? ¿Por qué no sabemos qué edad es la adecuada para comprar un móvil a nuestras hijas e hijos? Vemos todos los días a nuestro alrededor cómo crecen los problemas de soledad, los de salud mental o los relacionados con las pantallas... No hablamos en abstracto. Es el problema del hijo de Eneko, que tiene adicción a las redes sociales. La baja por ansiedad de Itziar. O la soledad de Jose desde que perdió a su mujer. Es el momento de poner el bienestar emocional en el centro de la agenda política vasca. Al igual que hemos hecho con la vivienda. De hincarle el diente a los problemas y preocupaciones de las personas. Como hemos hecho siempre. Mirando de frente. Mirando a los ojos y a la cara de la gente.

Pertsonak zaintzea eta, horrekin batera, gure etxea babestea. Sutondoan belaunaldiz belaunaldi kontatu diren istorioen bitartez eraiki da gure etxearen historia. 7 herrialdez osatutako etxearen historia. Herri bat. Komunitate bat. Euskarak, gure balioek eta kulturak josiak. Batzen gaituzten hariak! Hori da Herri egiten gaituena. Bat egiten gaituena. Eta mundu global honetan ez daukagu erraza. Horregatik abiatu dugu “Jauzia gara” ekimena. Euskara ez da borrokarako! Euskarak bultzada berria behar du! Euskarak denon hauspoa behar du! Denona!

Proteger nuestra casa significa también garantizar de qué vamos a vivir. Qué vamos a comer hoy y qué van a comer nuestras hijas e hijos mañana. Hablo de contar con una economía vasca fuerte. De apoyar a la empresa, a quien invierte y arriesga para crear empleo de calidad. Hablo de apostar por la industria vasca. De invertir en ciencia y tecnología. O de coger el tren de la reindustrialización que viene a Europa. Hablo de ampliar la capacidad eléctrica o de sacar adelante Talgo, Balenciaga o Guardian. Esto es sembrar para recoger. Crear riqueza hoy para repartir bienestar mañana. Y hacerlo con rigor. Priorizando. Sin malgastar. Como hacemos en casa. Necesitamos también un buen tejido que nos proteja de las tormentas.

Y eso es ocuparnos de nuestra seguridad integral. Energética, tecnológica, climática, alimentaria, o de salud pública. Ayer el COVID. Hoy una DANA, mañana un apagón, o

Batzen gaituzten hariak.



ALDERDI EGUNA 2025
2025.09.28. Igandea. Forondan

pasado mañana incendios devastadores. Pero también la seguridad de andar sin miedo por la calle. Seguridad ciudadana. No vamos a permitir, que nuestras hijas, amamas o aities no puedan andar tranquilos por los pueblos de Euskadi.

Para eso contamos con todas y todos los agentes que cada día salen a la calle a protegernos y a hacer frente a los peligros. ¡Nuestra Ertzaintza y Policías municipales! ¡Hoy les muestro todo nuestro respaldo y apoyo! Porque nos preocupa lo que hemos visto este verano en algunos pueblos, donde se ha señalado a quienes nos protegen. Txalo eta besarkada bero bat babesten gaituztenentzat! Egunero lan egiten duzuen ertzain, udaltzain eta profesional guztientzat! Zuekin gaude! Eskerrik asko gu babesteagatik! Eskerrik asko beti hor egoteagatik!

Pero tan importante como proteger, es también renovar y ampliar la casa vasca. Y eso pasa por fortalecer nuestro Autogobierno. El año pasado lo dije aquí públicamente. “El Pacto para cumplir el Estatuto de Gernika obliga y Moncloa lo sabe”. Y voy a recordar lo que algunos quieren olvidar. Las competencias pendientes pertenecen, “por Ley y referéndum”, al Pueblo Vasco desde 1979. Exigimos lo que es nuestro.

Sí, es cierto que este año hemos avanzado. Tenemos más competencias: Gestión de litoral, Cinematografía, Meteorología, Salvamente marítimo, Autorizaciones de trabajo para extranjeros, Prestaciones no contributivas, Seguro escolar, Subsidio por desempleo... Hemos avanzado... Lograr cada competencia es como sacar una muela. Y queda mucho. Queda mucho. Ya sabéis cómo son en Madrid... Ya les conocéis... Vas allí y todo son buenas palabras. Pero en cuanto llega el primer papel... del dicho al hecho va un trecho. Hay mucho trilerero. Son 46 años de lucha y experiencia negociadora. Y ya los conocemos, como para caer en ese juego. Por lo tanto... que tengan clara una cosa: vamos a pelear por cada una de las competencias que nos pertenecen... y que no se confundan... ¡Ni nos van a dar gato por liebre! ¡Ni vamos a aceptar mercancía averiada! ¡Ni gato por liebre ni mercancía averiada!

Euskal Etxea indartzen eta zabaltzen jarraitu behar dugu. Zergatik? Nazio bat garelako eta eskubidea dugulako! Gaur, Europan gaude; Arazo eta erronka berriak dauzkagu; eta gure Nazioa hauspotzen jarraitu behar dugu. Horretarako, ahalmen politiko berriak behar ditugu. Hoy formamos parte de Europa y queremos sentarnos en las mesas en las que se toman las decisiones que nos afectan. Hoy necesitamos responder a retos globales como la migración. Un ejemplo: cuando se aprobó el Estatuto de Gernika vivían 10.000 personas de origen extranjero entre nosotros, hoy son casi 300.000. ¿Cómo debe responder este Pueblo, con características singulares y una lengua minorizada, a esta cuestión? Lo digo porque la situación de hoy, salvando las distancias, tiene algunos paralelismos con lo que vivimos décadas atrás. Decenas de miles de personas llegaron a Euskadi el siglo pasado desde diferentes lugares del Estado. Soy biznieto de personas

Batzen gaituzten hariak.



ALDERDI EGUNA 2025
2025.09.28. Igandea. Forondan

que vinieron de Burgos, y estoy orgulloso de serlo. Y orgulloso de abrazar la causa de este Pueblo. De ser un Lehendakari jeltide y abertzale que representa y defiende cada día la Causa Vasca y la Casa Vasca.

Nuestra casa tendrá las puertas abiertas y generosidad para quien lo necesite, siempre que se cuide y se respeten las normas. Euskaraz esaten dugun bezala: Herriak bere lege, Etxeak bere aztura! Hau da: gure etxean atea beti zabalik, etxeakoak eta arauak errespetatzen dituenarentzat! Hori da gure tradizioa... Por eso hoy necesitamos nuevas capacidades políticas para gestionar la migración, y poder acoger e integrar de manera adecuada a quien llega a Euskadi en busca de un futuro mejor. No es un capricho. Es una necesidad.

Horrekin batera, gaitasun politiko berriak behar ditugu gure Autogobernua blindatzeko. Erosioa eta erasoak behin betiko ekiditeko. Horregatik eskatzen dugu alde bikotasun-eredu eraginkorra. Baita berme-sistema inpartziala ere. Nekatuta gaudelako! Nekatuta, akordio politikoak ez betetzearekin. Nekatuta, epaileak adostasun politikoaren gainetik jartzearekin. Nekatuta, gure autogobernua higatzearekin. Baina, lasai... Sutan ondo probatuta daukagu lapiko hori! Ezagutzen ditugu! Ez gaituzte engainatuko! Guk Euskal Etxea indartzen eta zabaltzen jarraituko dugu! Ez gaituzte engainatuko!

Datozen hilabeteak erabakigarriak izango dira. Eta momentua baliatu behar dugu. Gure Nazioari ekarpena egiteko aukera berri bat dugu. Ez dugu bestelako kalkulurik egingo. Ez gara jolasean ibiliko. Gernikako Estatutua goi mailako testu politikoa da. Bisio eta balio izugarrikoa. Hori da gure abiapuntua. Eta gure jarrera? Aurrekoek erakutsi zigutena: umiltasuna, lan isila, zorrotasuna, eskuzabaltasuna eta Herri hau erdigunean jartzea. Guk horrela jokatu dugu. Baina ez da nahikoa guk bakarrik horrela jokatuarekin. Besteek ere altura eta jarrera bera erakutsi behar dute. Ikusiko dugu... Baina ez dugu onartuko inork gure Autogobernuarekin eta gure Herriaren etorkizunarekin jolastea! Jolasak parkean! Guk ez dugu hutsik egingo! Hitza ematen dizuet!

Os decía al comienzo que el mundo está muy movido. Hay mucha incertidumbre e interrogantes sobre la evolución de la economía. Los nubarrones de la meseta madrileña tampoco preludian nada bueno. Pueden venir tiempos oscuros para Euskadi. Tiempos de crisis o de cuestionamiento para nuestro Autogobierno, nuestra identidad o nuestras instituciones. Estamos escuchando discursos muy peligrosos. Viendo programas y propuestas que pretenden suprimir el Autogobierno, el Concierto económico o la recentralización de la educación, la seguridad o la sanidad. Y ya visteis hace unos meses el desprecio al euskera que sufrió nuestro Pueblo en Barcelona. Que no nos desprecien. Y que no nos menosprecien.

Batzen gaituzten hariak.



ALDERDI EGUNA 2025

2025.09.28. Igandea. Forondan

No lo vamos a permitir. Nos van a tener en frente. Somos un Pueblo. El Pueblo Vasco. Somos una Nación. La Nación vasca. Con una lengua, el euskera. Que merece ser cuidada y respetada. Como parece que no lo entienden... se lo vamos a decir en inglés. Se lo vamos a decir, como responde Javier, el navarro de Sunbilla, cuando le preguntan en Boise a ver de dónde es: I AM BASQUE! WE ARE BASQUE! Baigorri, Tafallan, Bermeon, Ordizian, Laudion, Hazparnen, Maulen edo Boisen! WE ARE BASQUE! Eta ingelesez behar bezala entzun ez badute, euskaraz ere argi eta ozen esaten diegu: Ayuso anderea. Euskaldunak gara! AYUSO... ENTZUN! EUSKADI EUSKALDUN!

Hay que estar muy atentos, sí. Pero actuar con calma y unidos, porque en este País estamos haciendo los deberes. Y os pido confianza. Confianza en el partido, porque tenemos detrás la fuerza de todo un Pueblo. Confianza en la juventud vasca, la mejor cantera. Y confianza en nuestras instituciones. Todas las instituciones tenemos que actuar a una. Con visión nacional, cada una desde sus capacidades, y horizonte de País.

Konfiantza eta esperantza. Ekaitzen aurrean etxea babesteaz gain, etorkizuna prestatzen ari gara. Gu beti etorkizunera begira. Eta baikorra naiz: sasi guztien gainetik..., etxe honek, gure etxeak, zutik jarraituko du! Gure Herria, Euskal Herria, milaka urte dituen herri xumea da. Eta etengabeko erasoak jaso ditu: Feniziarak, erromatarak, edo bisigodoak... Oinaztarak eta ganboatarrak... Gerra karlistak, Gerra zibila, Franco edo ETA... Gaur ere, itsasoan urak handi "dire", baina horrek ez gaitu kikilduko! Aurrera egingo dugu! Ni prest nago herri honen lema lepoan hartu eta aurrera egiteko! Balio demokratikoak eskuan! Zuekin guztiekin batera! Euskal nazioa eraikitzen jarraitzeko! Zazpiak bat eginda, euskaldunak garelako!

Gora Eusko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!